Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2024ko ekainaren 19ko 16:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Elena Jiménez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldua Ortiz de Guzman, Enrique Garralda Erro, Teresa Bidaurreta Azcarate eta Juan Luis Fermin Gil García zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Leire Remiro Esnoz izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gari zerrendari ekin baino lehen ETI taldeko Gil García zinegotziak eta EHBildu Erroibar taldeko Zaldua Ortiz de Guzman zinegotziak bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

1.- 2024ko APIRILAREN 17ko ETA MAIATZAREN 13ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

2024ko apirilaren 17ko akta onartzea erabaki da. Garralda zinegotzia abstenitu egin da bilkurara joan ez zelako.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2024ko maiatzaren 13ko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2024ko APIRILAREN 12tik EKAINAREN 14a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2024ko apirilaren 12tik ekainaren 14ra eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du.

Idazkariak jakinarazi du 63. zenbakiko ebazpenak, dirulaguntzen deialdira aurkeztutako euskarazko jardueri buruzkoak, ez zuela goiburua ongi, eta zuzendu egin dela, lehen paragrafoa 62. ebazpenetik kopiatu baita. Remiro Esnoz alkate andreak hartu du hitza eta esan du 63. ebazpenari goiburua bat jarri behar zaiola, ebazten denarekin bat datorrena.

Udalkideak jakitun dira.

3.- ERROIBARKO UDALAREN HITZARMENA BERRESTEA LURRALDEAN GAZTEAK FINKATZEKO NEURRIAK (PIRINIOKO PLANA)

Remiro Esnoz alkate andreak hartu du hitza eta Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenaren berri eman du. Hitzarmen hori 2023-2024 ikasturteko derrigorrezko hezkuntzaren ondoko eskola-garraioa finantzatzeko Nafarroako Gobernuaren ekarpen ekonomikoaren oinarria da.

Bidaurreta zinegotzi andreak hartu du hitza eta hitzarmeneko 3. puntuari buruz galdetu du, alegia, kostua ez bada osatzen Hezkuntza Departamentuaren laguntzetatik heldu diren familien ekarpenekin, Erroibarko Udalak hartuko duela bere gain diferentzia. Hori horrela den galdetu du, izan ere, udal bakoitzak bere zatia hartuko zuela erabaki zuen. Idazkariak erantzun du hitzarmenean Erroibarko Udalak bere gain hartzen duela esaten den arren, garraio hori erabiltzen duten erabiltzaileak

dituzten udal guztiek hartuko luketela bere gain, dagokien zatian. Alkateak hitza hartu du esanez hitzarmena sinatu eta zerbitzu hori eman den bi urteetan ez dela dirurik jarri behar izan, ez baita galerarik egon eta kostua Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin eta familien ekarpenekin estali delako. Nolanahi ere, idazkariak argitu du diru-laguntza beherantz alda daitekeela zerbitzuaren kostua, familien ekarpenak kenduta, 60.000 euroko laguntza baino txikiagoa bada, diru-laguntzen eta ekarpenen batura ezin baita inoiz izan ematen den zerbitzuaren benetako kostua baino handiagoa.

Aho batez erabaki da Tokiko Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmena berrestea.

4.- ERROIBARKO UDALAREN ETA IRATI-ORREAGA LANDA TURISMOAREN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Alkate andrea Remiro Esnozok jakinarazi duenez, aurrekontuen bilkuran Irati-Orreaga Landa Turismoko Elkartearekin elkarlanerako borondatea zegoela aipatu zen bezala, hitzarmen zirriborro bat aurkeztu dute tokiko erakundeek aztertu eta sinatzeko. Aldaketaren bat egin ondoren, hitzarmena bilkuraren espedienterako bidalitakoa da. Bertan, hasiera batean, bi urteko iraupena eta 3 euroko urteko kuota proposatzen dira erroldatutako pertsona bakoitzeko. Helburua Erroibarko Udalaren eta Irati-Orreaga Landa Turismo Elkartearen arteko lankidetza arautzea da, turismo-estrategiak diseinatzeko, turismoari, ostalaritzari, merkataritzari eta tokiko produktuari lotutako aholkularitza emateko eta turismo-jarduerak sustatzeko.

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta galdetu du zer irizpide erabili den erroldatutako pertsona bakoitzeko hiru euro proposatzeko, eta ea ez den suposatzen proposatzen dituzten jarduera horiek guztiak elkarteak berak egiten dituela dagoeneko. Alkateak lehenengo galderari erantzun dio ez duela informazio hori, irizpidea biztanleena dela, baina ez dakiela zergatik ezarri den hiru euro izatea, bileran proposatutako kopurua izan ez bada, eta bigarren galderari dagokionez, ezetz erantzun du, orain arte ez baitago tokiko erakundeekin elkarrekintzarik. Jimenez Rey zinegotziak hartu du hitza eta esan du adibidez, Sorogaingo aterpetxea ez dagoela elkartearen barruan. Elkartean orain jarduera partikularrak, landetxeak, jatetxeak, dendak... besterik ez daude, baina zerbait berria da eta, gure kasuan, Sorogaingo aterpetxea sartuko litzateke.

Alkate andreak hartu du hitza berriro aipatutako hitzarmenaren helburuari erreferentzia eginez, uste du udalarentzat lan produktiboa ekarriko duela turismoaren arloan, eta, nahiz eta hitzarmena ibilbide laburrekoa izan, tokiko erakunde guztiek uste baitute emaitzak ikusteko proba bat dela, onuragarria bada, berritu egingo da, eta onuragarria ez bada, ez da berrituko.

Gil zinegotziak adierazi du ez dagoela informaziorik elkarteak zehazki zer egiten duen, ez bere kontuei buruz, ez nortzuk osatzen duten. Bere ustez, diru publikoa emateko hori guztia jakin behar da, eta egingo denaren dokumentu bat aurkeztu beharko litzateke, baita ezer sinatu aurretik aurrekontu bat ere, eta urtebeterako sinatzea nahikoa dela deritzo. Alkateak erantzun du kuantifikazio hori ezin dela eduki une honetan, eta Zaldia zinegotziak gaineratu du egin diren bileretara eta aurkezpenera korporazio osoa gonbidatuta egon dela eta bertaratu ahal izan dela, eta, alkateak adierazi duenez, elkarte Powerpoint batekin aurkeztu zela, nahiz eta egia den ez dagoela idatzizko dokumentaziorik. Beste aldetik, hitzarmena urte beterako sinatzea emaitza ikusteko gutxiegi dela deritzo.

Nuño zinegotziak hitza hartu du eta proposatu du power pointa eskatu eta partekatzea proposatu du eta alkateak gaineratu du web orrian informazioa eskuratu ahal dela.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aldeko lau botoz (Remiro Esnoz, Jiménez Rey, Nuño eta Zaldia) eta hiru abstentzioz, informazio nahikoa ez dagoela uste baitute, (Garralda, Bidaurreta eta Gil), hitzarmen hau onartzea:

1.- ERROIBARKO UDALAREN ETA IRATI-ORREAGA LANDA TURISMOAREN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

BILDURIK:

Alde batetik, Erroibarko Udaleko alkatea, Leire Remiro Esnoz, udal horren izenean eta hura ordezkatzuz parte hartzen duena, indarreko legeriak ematen dizkion eskumenak erabiliz.

Berariaz ahalmena du hitzarmen hau formalizatzeko, Udalaren Osoko Bilkuraren 2024ko ekainaren 19ko erabakiaren bidez.

Eta bestetik, Joseba Martinez Rey, Irati-Orreaga landa turismo Elkarteko burua, IFZ G-31412729 duenak, haren izenean eta hura ordezkatzuz. G-31412729, en nombre y representación de la misma.

Udaleko idazkaria bertan da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 1.a) artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 239. artikuluan aurreikusitako fede publikoa erabiltzeko.

ADIERAZTEN DUTE:

Irati Orreaga Landa Turismoko Elkarteak Artzibar, Erroibar, Aezkoa eta Luzaide, Auritz eta Oroz-Betelu herrietako enpresak eta pertsona autonomoak biltzen ditu. Bere helburuen artean, Administrazio Publikoen eta ekimen pribatuaren arteko lankidetzak eta ahaleginak batzea dago, Ibarreko turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzak egin ahal izateko, bai eta bazkideen eta erakunde publiko eta pribatuaren artean elkarri interesatzen zaizkion gaiak bideratzeko ere.

II Udalak era guztietako harremanak sustatu nahi ditu Irati-Orreaga Landa Turismoko Elkartearekin, Artzibar, Erroibar, Aezkoa eta Luzaide, Auritz eta Orotz-Beteluko herrietako enpresa eta autonomoen interesekoak diren gai guztiak hobetzeko.

ADOSTU DUTE

LEHENENGO. - Hitzarmenaren xedea da Erroibarko Udalaren eta Irati-Orreaga Landa Turismo Elkartearen arteko lankidetzaren arautzea, turismo-estrategiak diseinatzeko, turismoari, ostalaritzari, merkataritzari eta tokiko produktuari buruzko aholkularitza emateko, bai eta turismo-produktuak eta horri lotutako jarduerak sustatzeko ere.

BIGARREN: - Erroibarko Udalak erroldatutako biztanle bakoitzeko 3 euroko ekarpen ekonomikoa emango dio Irati Orreaga landa-turismoko elkarteari 2024. eta 2025. urteetarako, aurrekontu-partidaren kargura, eta urtero berritu ahal izango da bi aldeek hala adosten badute.

HIRUGARREN: - Emandako ekarpena jasotzeko, Elkarteak honako hauek aurkeztuko ditu: ekitaldian garatutako jardueraren balantzea, aurrekontua, abenduaren 31ko bazkide-kopurua eta ekitaldi horri dagozkion kuota kobratuak.

LAUGARREN: - Udalak udalbatzako pertsona bat izendatuko du Elkartearekin harremanetan jartzeko pertsona arduraduna izan dadin Hitzarmen honen xede diren ekintzak planifikatu eta egiteko.

BOSGARREN: - Udalak lehentasunezko solaskidetzat hartuko du Elkarteak, eta informazioa eta parte-hartzea emango du turismoarekin, jatetxeekin, tokiko produktuekin eta abarrekin zerikusia duten gaietan eragina duten eztabaida-taldeetan, bai eta garatu nahi diren proiektu eta espazioekin zerikusia duen guztian ere. Baita erakundeak bere jardura instituzionalaren barruan egokitzea jotzen dituen esparru estrategikoetan ere.

SEIGARREN: - Irati-Orreaga Landa Turismo Elkarteak bazkide gisa hartzen ditu Erroibarko Udalak zehazten dituen titulartasun publikoko establezimenduak, eta ikusgarritasuna emanen die elkartearen webgunean eta sare sozialetan. Establezimendu horiek aktibo egongo dira erakundeak hala dioenean, eta Elkartearen ardura izango da sareetan integratzeko eta hedatzeko lana Erakundeek erabakiko dute zein pertsonak ordezkatzeko dituzten establezimenduak asanbladan, eta horiek kontsulta moduan egingo dute, hau da, ahotsarekin baina botorik gabe.

ZAZPIGARREN: Landa-turismoko elkarteak konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularra sustatzen duten jarduerak egiteko eta tokiko produktuari balioa emateko inplikaturako bailara eta herrietan. Jardueren karteletan eta zabalkundean erakundearen bereizgarria jasoko da.

ZORTZIGARREN: Elkarteak konpromisoa hartu du adin guztietako jendearentzat irekiak izango diren jarduerak antolatzeko. Prestakuntza edo

kualifikazio programak ere irekiak izango dira Elkartekoak ez diren pertsonentzat, bakoitzaren kostua zehaztuz.

BEDERATZIGARREN: - Erakunde onuradunak Udalak ezarritako betebeharrak guztiak bete beharko ditu, bai eta, dirulaguntza honen onuradun den aldetik, indarrean dagoen legeriaren arabera eska dakizkiokeen guztiak ere:

a) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (GLL) 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetatik bat ere ez izatea. martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoak emandako idazketan. Era berean, elkarteak egunean izan behar ditu bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzatik eratorritakoak. Atal horietako edozein ez betetzeak erakunde publikoak hitzarmena deuseztatzea ekarriko du

b) Diru-laguntzaren xede den lehen klausulan adierazitako helburuak betetzea eta justifikazio-kontu baten bidez egiaztatzea, ondoren adieraziko den moduan.

c) Udalari hilabeteko epean jakinaraztea Elkaratearen barruan gertatzen diren aldaketa guztiak, bai eta Elkaratearen ordezkari berriak eta lehendakaria ere.

d) Jardueraren egiaztapen eta jarraipenerako jarduketak eta kasuan kasuko udal zerbitzuek egin ditzaketen finantzen kontrolerako jarduketak onartzea.

HAMARGARREN. - Idazkaritza/Kontuhartzailatza Zerbitzua dirulaguntza honen Organo Kudeatzailea da, beraz, ematen den dirulaguntzarekin zerikusia duen edozein izapide (jarraipena, justifikazioa eta egiaztapena) haren bitartez egin behar da.

HAMAIKAGARREN. - Hitzarmen honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (LGS-), uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (RLGS-) eta diru-laguntza publikoak arautzen dituen toki-araubidearen gainerako legeria aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, eta hitzarmen honen edukiarekin ados daudela erakusteko, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

2.- Leire Remiro Esnoz alkatea Erroibarko Udalaren arduraduna izendatzea Irati-Orreaga Elkaratearekiko harremanetan.

3.- Hartutako erabakia Irati-Orreaga Elkarateari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

5.- UDALAREN ETA CEDERNA-GARALURREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, 2023-2025 EPERAKO PIRINIOA HELMUGA TURISMO

IRAUNKORTASUNERAKO PLANEAN SARTZEKO, EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTA - NEXT GENERATION EU

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du PSTDri aurkeztutako proiektuei dagokienez (Bidezidorrak, Sorogaingo Musealizazio Digitala eta Suteen aurkako Plana), Erroibarko Udalaren eta Cederna-Garalur elkartearen arteko hitzarmena onartu behar dela osoko bilkuran, proiektuak 2023-2025 Pirinioen Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planean sartzeko helburuarekin, Europar Batasuna-Next Generation EUk finantzatuta, eta dirua Cedernara iritsi dela jakinarazi du.

Jimenez Rey zinegotziak Cedernako teknikari batek igorritako idatzia irakurtzea proposatu du, hona hemen:

2020an, Nafarroako Gobernuak Gune Turistikoak Kudeatzeko Unitateak (UGET), 8 Nafarroan, abian jartzea bultzatu zuen, lurralde-helmugen eta eskualde-estrategiaren arteko koordinazioa errazteko metodologia gisa.

Zehaztutako GTKU batek Pirinioetako eskualdearekin bat egiten du. 33 udalerrri dira, hots, Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar, Artzibar, Esteribar, Orotz-Betelu, Luzaide eta Auritz.

Next Generation Funtsek finantza esparru bat sortu dute, eta, horri esker, plan estrategiko espezifiko bat zehaztuko dute turismorako, Europatik % 100ean etorritako funtsak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren bidez Organo arduraduna Turismo, Merkataritza eta Kontsumorako Zuzendaritza Nagusia da. Cederna-Garalur entitate kudeatzailea eta ekintzailea da.

Partaidetza prozesu baten ondoren (DAFO analisisa ESTRATEGIAREN GARAPENA), 2022an 3 PSTD onartu ziren: Pirinioa, Baztan eta Aurrepirinioa eta Zangozaldea.

Planak 4 ardatz ditu bakoitza jarduketetan banatua:

- *Trantsizio berdea eta jasangarria*
- *Energia eraginkortasuna*
- *Trantsizio digitala*
- *Lehiakortasuna*

Bat eta bi ardatzak etiketa klimatikoak betetzeari lotuta daude, eta 3 ardatza etiketa digitalari. Hori dela eta, egiten diren jarduerak ingurumen-izaera nabarmena dute. Azpimarratu behar da turismo-planak izan arren, iraunkortasuna helburu duten planak ere badirela, eta, beraz, haien helburu nagusia ez dela turismo gehiago erakartzea, baizik eta lehendik dauden baliabideak berrantolatzea.

Garralda zinegotziak dio hitzarmena eta haren izapidea ulertzea konplikatu egia iruditzen zaiola.

Horiek horrela, eta irakurri ondoren, Udaltzatzak honako AKORDIO hau onetsi du aho batez. Hona hemen akordioaren testu osoa:

ERROIBARKO UDALAREN ETA CEDERNA-GARALURREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, 2023-2025 EPERAKO PIRINIOA HELMUGA TURISMO IRAUNKORTASUNERAKO PLANEAN SARTZEKO, EUOPAR BATASUNAK FINANTZATUTA - NEXT GENERATION EU

Udaltzatzak, bertaratutako zinegotziek gehiengo osoa osatzen dutenez, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGO. - Erroibarko Udalaren eta Cederna-Garalurren arteko hitzarmena onartzea, 2023-2025 EPERAKO PIRINIOA HELMUGA TURISMO IRAUNKORTASUNERAKO PLANEAN SARTZEKO

BIGARREN: - Alkateari, edo legez ordezkatzeko duenari, dagokion hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea eta horretarako beharrezko gestioak egitea.

HIRUGARREN: - Cederna Garalur Elkarteari erabaki honen berri ematea.

6.- SARA CASTILLO OSESEK ARDAIZKO 19 POLIGONOKO 18 LURZATIAN SUSTATU DUEN XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA

Idazkariak hitza hartu du eta Sara Castillo Osesen UE17 exekuzio unitatean sustatu duen Xehetasun Azterlanari buruzko informazioa eman du, izan ere 2024ko apirilaren 11ko 53 zkia. duen alkate ebazpen bidez onetsi zen hasiera batean, Ardaizko 19 poligonoko 18 lurzatiaren lerroak aldatu eta indarrean dagoen planeamenduari zein sustatzaileen benetako beharrei egokitzeko; 2024ko apirilaren 25eko 85. NAO argitaratu ondoren jendarean egon den bitartean alegaziorik aurkeztu ez denez, onestea dagokio.

Hortaz, erabaki da aho batez:

1º.- Sara Castillo Osesen Ardaizko 19 poligonoko 18 lurzatian sustatu duen xehetasun azterlana behin betiko onartzea

2.- Erabaki hau NAO argitaratzea eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari igortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Foru Dekretu Legegintzailearen 74. Artikulua garatzen duen 79. Artikuluari jarraikiz.

7.- KULTURA ETA KIROL ORDENANTZAREN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta adierazi du, ordenantza berria urte honetan aplikatu ondoren, aplikatzeko orduan, artikuluetako bi edo hiruk aldaketa behar dutela antzeman dela. Osoko bilkurara ekarri dira, hurrengo aplikazioari begira, ordenantzaren doikuntza horiek deialdi berrian operatibo egon daitezen.

Honako artikulua aldatuko lirateke: 7, 10 eta 11.

Kultur jardueretarako eskabideak aurkezteko epeari buruzko 7. artikuluari dagokionez, eraginkorragoa da lanaldia eskola urtearekin bat etortzea

Aldaketa honakoa izango litzateke:

7. Artikulua.

7.2 Kultur jarduerak

Jarduerak egiteko epea aurtengo urriaren 1etik hurrengo urteko irailaren 30era da.

Ikasturte berriko proiektua aurkezteko epea: irailaren 30a.

Bukatutako ikasturtearen memoria aurkezteko epea: urriaren 31

10. artikuluari dagokionez, ordenantzan jasotzen ez den% 60ko aurrerapenari buruzko udalaren ohiko praktika sartu nahi da, eta eskabide-eredua aldatu, honela dioen paragrafoa ezabatuz *“entitateko buruak edo behar bezala egiaztatutako eskuordetza duenak izenpetua...”*

Aldaketa honakoa izango litzateke:

10. Artikulua. *Esparru ez konbentzionala.*

Dirulaguntza ematean %60 aurrerapena egingo da.

Ordenantza honetako aginduei jarraikiz emandako diru-laguntza osoa jasotzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da udaletxean:

a) Egindako jardueraren memoria xehea.

b) Eskabidea, alkateari zuzendua, dirulaguntza ordaintzea eskatuta eta transferentzia egin behar den kontu zenbakia adierazita.

Azkenik, 11. Artikuluari dagokionez, esaldi hau kentzea proposatu da: *“...eta, dagokion arloko zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, bidezkoa bada, onesteko eta ordaintzeko proposatuko dio osoko bilkurari...”* izan ere arloan lan egin ohi da, ebazpena egiten da baina ez da osoko bilkuratik pasatzen, hortaz, 11. Artikulua honela geldituko litzateke:

11. Artikulua. *10. artikuluan aipatzen diren egiaztagiria dirulaguntza ordaintzeko eskaera formalizatzen den unean aurkeztuko dira. Dagokion batzordeak espedientea aztertu eta, hala badagokio, onartzea eta ordaintzea erabakiko du.*

Eta proiektuen puntuazioari dagokionez, akats bat dago eta 50 puntu izango litzateke, honela banatuta:

“Proiektuen puntuazioa (taula bera ikastaro zein ekitaldietarako)

Proiektua: 50 puntu.

Eskatzaileak (pertsona fisikoa edo juridikoa) helbide soziala ibarrean dauka: 5 puntu

Proiektua euskaraz idaztea (edo ele bietan gaztelania/euskara): 5 puntu

Proiektua idaztean hizkuntza inklusiboa erabiltzea: 5 puntu

Proiektuak emakumeen parte hartzea sustatzen du: 5 puntu

Proiektuak 18 eta 30 urte arteko gazteen parte hartzea sustatzen du: 5 puntu

Proiektuak zahartze aktiboa sustatzen du: 5 puntu

Proiektuak euskarazko jarduerak eskaintzen ditu: 5 puntu

Memorian balorazio galdetegiak sartuko dira: 5 puntu

Memorian parte hartzearen datuak sartuko dira: 5 puntu

Memorian parte-hartze datuak, adinaren eta sexuaren arabera bereizirik, gehituko dira: 5 puntu

Nuño zinegotziak hartu du hitza eta esan du Haize Morea taldeak parte hartzerik izan ez zuen arloko beste bilera baten ondoren, ETI taldearen proposamena aurkeztu dio osoko bilkurari, Bidaurreta zinegotzi andreak bitartez, eta eskualdeko proiektuetan aldaketa bat proposatzen du:

% 70eko dirulaguntza Erroibarren egiten diren proiektuetarako, eta % 30eko dirulaguntza eskualdean egiten diren jardueretara joaten diren ibarreko erroldatuentzat.

Era berean, Nuño zinegotzi andreak bere EH Bildu taldeak eta Haize Morea taldeak, proposamena partekatu eta eztabaidatu ondoren, proposamenaz dioten iritzia azaldu du:

Alde batetik, aipatu behar da ordenantzaren puntu hau asko eztabaidatu zela hura egin zen bitartean, eta, azkenik, aho batez onartu zela aurreko legegintzaldian.

Proposamen honek ordenantzaren egitura aldatzea eta haren idazketa berria dakarrela, xehetasunen berregokitzea baino gehiago da, kontuan hartu ez zirela edo, esperientziaren ondorioz, aldatzea egokitzen jo dugula.

Gure ustez, eskualdeko proiektuak egiten laguntzea ez doa Erroibarko herritarren eskubideen kalterako; aitzitik, jarduera gehiago sustatzea errazten du, bertako inongo kolektibo, elkarte edo kontzejuk antolatu ez arren.

Ibarrean egiten diren ikastaro eta ekitaldiek lehentasuna dute; eskualdekoek, berriz, aurrekontuaren menpe daude, eta, beraz, onurak eta aukerak ekar ditzakete

pertsonek antolatzen diren jardueretan parte har dezaten. Lehentasunezkoak ez izateak oso izaera bereizgarria ematen diela uste dute. Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza batzordean esandakoa berretsiz, adierazi du, ikastaro horietakoren batean Erroibarko inor ez badago, ibarrekoak ez diren enpresa bati edo batzuei dirulaguntza, diru publikoa, ematen ari zaiela, eta galdetu du ea norbaitek ziurta dezakeen ematen diren ikastaro guztietan Erroibarko pertsonek parte hartuko dutela. Eta, beraz, bailarako jendeak parte hartzen ez badu, nahiz eta inguruan egin, beste pertsona batzuek etekina ateratzen dute Nuño zinegotziak erantzun du hemen egiten ez badira zonaldekoa ez dela ulertuko dela, kanpoan egitea zaila izango dela eta ez hemen, nahiz eta gerta daitekeen eta proiektu komun bat dela, eta alde aurretik ezin dela jakin nork parte hartuko duen edo ez Bidaurreta zinegotziak berriro hartu du hitza eta adierazi duenez, ordenantza prestatzeko eztabaidetan, bere taldeak behin baino gehiagotan galdetu zuenean Añamendi eremuaz hitz egiten zenean zeri egiten zitzaion erreferentzia, Garralda eta Zubiriko eskolei buruz ari zela azaldu zen, eta zergatik egiten ziren han jarduerak Nuño zinegotziak Bidaurreta zinegotziari galdetu dio aurrean antolatu diren jarduerak ongi ala gaizki iruditzen zaizkion, aurrean esku hartze hori egon izan ez balitz Erroibar ia jarduerarik gabe geldituko zela gehituz. Zinegotziak erantzun du kontua ez dela ea jarduerak ondo dauden ala ez, baizik eta Erroibarrekoak ez diren pertsonek Erroibarrak ematen dituen laguntzak aprobetxatzen dituztela, Erroibarreko bizilagunei dagokien dirua Remiro Esnoa alkate andreak hartu du hitza eta zaldu du ikuspuntuaren desberdintasuna dela, nahiz eta ulertzen duen zer planteatzen duen Bidaurretak, ordenantzaren helburua dela kultur eta kirol jarduerak eskaintzen dituzten ekimenak eskaintzea eta diruz laguntzea, eskaintza hori erabiltzen duena edozein dela ere, eta eskaintza horien barruan tokiko proiektuak eta eskualdeko proiektuak daudela. Garralda zinegotziak hitza hartu du eta esan horren guztiaren oreka bilatu behar dela, eta Bidaurretak adierazi du bere taldearen helburua dela dirulaguntzak Erroibarko herritarrei zuzentzea Nuño zinegotziak azpimarratu du helburua dela Erroibarko jendeari jarduerak eskaintzea horiek eskura ditzan, eta aurtengo balorazioa da parte-hartzeari eutsi zaiola eta eskaintza egon dela, eta, haren iritziz, zerbitzu mankomunatu bat lortu behar dela kultur eta kirol eragile bat kontratatuz.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da hasierako onespina ematea proposatu diren ordenantzaren aldaketei, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

8.- EUSKARAREN PROTOKOLOA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta azaldu du euskara teknikariak euskararen erabilera arautzen duen protokoloa prestatu eta aurkeztu duela.

Aho batez erabaki da aurkeztutako euskararen erabilera arautzen duen protokoloa onartzea.

Gai zerrendatik kanpo, Gil zinegotziak proposatu du ekainaren 28an gay harrotasunaren eguna denez udaletxeko balkoian bandera jartzea. Gaiaz hitz egitea adostu da aho batez eta ETI taldeak proposatu duena ere aho batez onartu da.

9.- BESTERIK

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta sortutako lan-arloen arabera, honako hau jakinarazi du:

1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du

Gazteriaren prozesu parte-hartzailea

Jakinarazi da datak aldatu direla eta udaren bukaeran egingo dela.

Udalbatza jakitun da.

Berdinatsuna

NABlren dirulaguntzara aurkezteko proiektu bat lantzen ari direla jakinarazi dute, eta gure bailaretan kontziliazioaren azterketa diagnostiko bat egiteko eskaintzak aztertzen ari direla

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Amavir Ibañeta

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta atzo bertan egin zen Batzar Nagusiaren bileraren berri eman du. Bilera horretan egoitzaren kontuak onartu ziren, eta Esteribar eta Erroibar toki-erakundeetako bi ordezkariak egoitzara bisita egin zuten zuzendaritzarekin hitz egiteko. Kontuan udalkideen esku utzi ditu aztertzeko. Nabarmendu nahi du adostu zen gauzetako bat izan zela, irailera begira, zonaldeko prestakuntza-ikastaroekin lotutako ekimenen bat bultzatzea, egoitzarekin lotutako lanpostuei begira, dagoen plantilari laguntzeko estrategia posible gisa, egoitzako punturik ahulenetako bat baita Nuño zinegotziak galdetu du ea ez zen hitzarmenari buruz ezertxo ere hitz egin, ulertzen baitu horrek egoera hobetzen lagunduko lukeela. Alkateak erantzun du Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, egoitzekin egindako esparru-akordio berriak lehia desorekatuko egoerak sortzen dituela landa-egoitzen eta hiri-egoitzen artean, eta zuzendaritzak uste duela ez dela neurri diskriminatzaile positiborik hartu egoitza horien alde. Bi urteko akordio markoa geratzen da, beraz, tokiko erakundeei gai hau politikoki lantzeko gonbitea egiten zaie, eta, langileen hitzarmenari dagokionez, bilera honetan ez zen jorratu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Auñamendi Mankomunitatea

Nuño zinegotziak jakinarazi du laster iritsiko dela 2024ko uztailaren 3rako bilera-deialdia, eta jakinarazi du, halaber, funtzionarizazio-prozesu bat pasatu zuten langileek soldata, antzinasun eta hiru urtekoen erreklamazioa egin dutela, uste baitute ez direla behar bezala aitortu ez ordaindu. Erreklamazioak onartu egin behar izan dira, eskatutakoa betez eta aholkularitzak egindako kalkuluen arabera 40.000 euro inguruko zenbatekoak ordaindu behar da. Udaletako idazkariekin bilera egin ondoren, hiru urteko ordainketa-plana eskainiko zaie, eta, ziurrenik, kuotak igo beharko dira gastuari aurre egiteko. Nolanahi ere, langileekin bilduko da eta planteatutako proposamena onartzen duten ala ez ikusiko da. Bestalde, Nafarroako Gobernuari ekarpena handitzea eskatuko diote, gastu horri aurre egin ahal izateko. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak aipatu du ez dagolea informaziorik.

3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Remiro Esnoz alkateak eman du informazioa

Guifinet

Guifi-net-ekin bilera egin da Udalaren zuntz proiektuaren balorazioarekin jarraitzeko eta herritarrekin egingo den bilera data jarri zen proiektu honi buruzko informazioa itzultzeko eta proiektuaren balorazioa egiteko. Hilabete honetan zehar datak adostuko dira

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Planaren laguntzen deialdia

Jakinarazi da laguntza-deialdira aurkezteko proiektu bat lantzen ari direla, eta dagoeneko atera dela, beste urte batzuetakoarekin alderatuta, aldaketa batzuekin Alde batetik, Sorogaingo interpretazio-zentroa edukiz hornitzeko proiektuaren idazketa aurkeztea pentsatu da (bakarka aurkeztuko da), eta, bestetik, Aurizberriko kontzejuarekin lankidetzaren proiektu bat aurkeztea (oraindik zehaztu gabe dago). Proiektu hori tokiko garraio publikoaren esperientzia pilotu bat da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak) Informazioa Zaldua Ortiz de Guzman zinegotziak eman du

Baso Jarduerak

Zaldua zinegotziak jakinarazi du laster aterako dela 2024-2025 aldiko baso-jarduketetarako laguntzen deialdia, eta, beraz, gai hori aztertzeko batzordea deitu beharko dela laster.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bidausi Mankomunitatea

Zaldua zinegotziak dio udan bigarren txoferra kontratatuko dela.

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du teknikariak Sorogainen dauden bateriak nora eraman daitezkeen aztertu duela. Azaldu duenez, hainbat saioen ondoren, azkenean enpresa batekin jarri da harremanetan, eta, bateriak jaso eta eramatera etor zitezkeen arren, zerbitzu hori ordaindu egin behar da; kasu honetan, 300,00 euro gehi BEZa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ehiza barrutia eta parke mikologikoa

Jakinarazi da ehiza barrutiaren kontuen bilera egin dela, baita parke mikologikoarena ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Kintoko Mankomunitatea

Jakinarazi da Kinto Mankomunitateko bilera egin zela eta langileen kontratazioaz hitz egin zela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

5 Arloa (hirigintza, azpiegiturak, etxebizitza) Informazioa Nuño zinegotziak eman du

Lintzoaingo obrak

Jakinarazi da bihar bilera bat egingo dela Lintzoaingo biztanleekin, 19:00etan, elkarteak, zolaketa lanei buruzko informazioa emateko. Abuztu erdialdean hasia aurreikusitako dute, lau hilabete inguruko iraupenarekin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

6 Arloa (ekonomia, kontuak, aurrekontuak, ogasuna, zergak) Informazioa Remiro Esnoz alkateak eman du

2023ko kontuak

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du 2023ko kontuen txostena ia prest dagoela, hortaz, uztailaren bukaeran ez ohiko bilera egingen da onesteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

7 Arloa (kontzejuak, herriak, pirinioa, toki administrazioa)

Pirinioko Mahaia

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du atzo premiazko bilera egin zela Pirinioetako Mahaian, Proiektu Estrategikoen Saitetik zetozen bi zerbitzuburuek bat-batean utzi zutelako lanpostua, eta Lurralde Kohesiorako Departamentura pasatu zirelako atalburu gisa. Bileran erabaki zen kargu-uzte horri buruzko balorazio ohar publiko bat prestatzea; izan ere, ekintza horien bidez aditzera ematen da egungo

departamentuarentzat Pirinioetako Planak ez duela garrantzirik, giza baliabiderik gabe uzten baitu eta oso zaila baita horri eustea. Hori dela eta, erantzun publiko bat emango da astean zehar, Pirinioetako planaren jarraipenari buruzko parlamentu-batzordeari jakinarazpen bat bidaltzeaz gain, eta herritarrei dei egingo zaie gertatutako guztiaren berri emateko, uztailaren 3an, 19:00ak aldera, Jaurrietan egingo den protesta-ekitaldi publiko baten bidez. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

8. Arloa (festak, ekitaldiak, Erroibarko Eguna) Remiro Esnoz alkateak informazioa eman du

Erroibarko Eguna

Remiro Esnoz alkateak dio tabernarako eskaintza bakarra dagoela baina oraindik ez dela ireki.

Egiteke daude hainbat gauza, besteak beste kartela, eta batzordea deituko duela horiek partekatzeko.

Bidaurreta zinegotziak hitza hartu du eta gazteen eskaera adierazi du, hau da, jakin nahi dute noiz deituko zaien batzorde batera, izan ere horretan gelditu ziren. Alkateak dio saiatuko dela heldu den astean egiten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du gustatu litzaiokeela prozesioaren gaia osoko bilkuran sartu izana, autobusaa, edariez, emakidaz, etab. mintzatzeko. Zaldua zinegotziak dio deigarria egiten zaiola kultur jarduerentzako erroldaturik egon behar izatea eta prozesioaren gairako ez izatea deus ere beharrezkoa.

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta esan du edariei dagokienez, Udala atxikita dagoela adikzioen plan batera eta uste duela eta dela egokia ekitaldi publikoetan alkoolik eskaintzea, hala ere ura banatu zen.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 18:50ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.